

EL VIAJE DE LAS PALABRAS

HITZEN BIDAIA



MARÍA NOEL ABELLA AISCAR

EL VIAJE DE LAS PALABRAS

HITZEN BIDAIA

Edición

Astromulo

Montevideo, 2025

astromulo@gmail.com

Ig: @astromulo2005

Ícaro encuadernaciones

tallerencuaderna@gmail.com

Fb: Ícaro Encuadernaciones

Por contacto con la autora: mnoelab@gmail.com

Revisión de textos: Javier Castro y Jasone Basurto

Luzuriaga

Collages de portada e interior: María José y María Noel

Abella Aiscar

ISBN: 978-9915-9693-5-0

ISBN: 978-9915-9693-5-0



Astromulo integra el colectivo de editoriales Sancocho



EL VIAJE DE LAS PALABRAS

HITZEN BIDAIA

(edición bilingüe español-euskera)



MARÍA NOEL ABELLA AISCAR

AGRADECIMIENTOS

Son las personas las que hacen que los relatos trasciendan. Cuando los viven, cuando los cuentan, cuando los escuchan y cuando cuentan a otras personas lo que otros contaron. Y esos relatos hacen que las personas trasciendan.

Aquí quienes los vivieron, los imaginaron, los escucharon y los contaron:

ESKER ONA

Pertsonek ematen dituzte kontakizunak ezagutzera, bizi dituztenean, kontatzen dituztenean, entzuten dituztenean. Era berean, kontakizun horiek ematen dituzte pertsonak ezagutzera.

Hemen daude kontakizunak bizi, imajinatu, entzun eta kontatu zituztenak:

María Claudina Oyhamburu Zabaleta

Graciela Aiscar

Amelia Aiscar

Iban Bilbao Barturen

Olga Fernández Ogando

María Villaplana

Pablo Silveira Artagaveytia

Vanessa Berazategui

Marta Urtasun
Alicia Zabaleta
Maite Bengoa
Mónica Gyssella Perna
Ana Barrera
Gotzone Bilbao
Ricardo Piñeyrúa
Nicolás Yeghyaian
Jorge Aiscar y Carlos Gardel
Mariana Zabaleta

Los relatos que encontrarán a continuación son un poco ciertos y un poco no. Algunos son autobiográficos y otros son prestados, compartidos, contados tal cual fueron escuchados o imaginados. Son míos y son de todas y todos.

Jarraian aurkituko dituzuen kontakizunak, neurri batean, egiazkoak dira; eta, beste neurri batean, ez. Batzuk autobiografikoak dira, eta beste batzuk mailegatuak, partekatuak, entzunda bezalaxe kontatuak edo asmatutakoak. Nireak dira eta guztionak dira.

María Noel Abella Aiscar

MI VIAJE AL EUSKERA

No creí que este viaje fuera tan largo. Un viaje para toda la vida... así, solo con el pasaje de ida. Hace tiempo pensé por primera vez aprender un idioma en serio. Me gustan mucho los idiomas, pero cuando elegí cuál estudiar, fue como si hiciera girar un globo terráqueo y mi dedo eligiera el destino... ¿euskera? ¿Por qué no? No sabía nada acerca del euskera, en mi familia se había dejado de hablar varias generaciones atrás. En realidad, algo sí sabía: que sería como entrar en una selva cuya flora, fauna y clima no conocía. Pero el misterio me entusiasmó.

Antes de hacer la mochila para iniciar este viaje, solo tenía en mis bolsillos algunas palabras sueltas que decía mi bisabuela y un viejo recorte de diario de un familiar que había sido el primer campeón de pelota vasca. Con eso me largué a la aventura. Cuando viajamos, conocemos rincones escondidos o viejas callecitas que muchas veces no muestran los folletos turísticos.

Las palabras en euskera son artesanías muy modestas y delicadas. Parecen hechas con los

propios elementos de la naturaleza. Cuando estoy recorriendo una feria de artesanías y me mezclo con colores texturas e historias, quisiera que todas las personas que quiero estuvieran ahí para disfrutar esas sensaciones conmigo.

De alguna forma, nunca estuve lejos de casa en este viaje. Siempre encontré allí (en el euskera) el hogar de mis antepasados. Lugares que ellos visitaban a través de sus pensamientos y recuerdos. Mientras más viajo, más siento que este es también mi lugar, mi casa. Voy a continuar este viaje... con lo puesto, que es lo que me lleva cada vez más lejos.



NIRE EUSKARARAKO BIDAIA

Ez nuen uste bidaia hau hain luzea izango zenik: bizitza osorako bidaia, horrela, joaneko txartela soilik duena.

Aspaldi pentsatu nuen, lehen aldiz, hizkuntza bat serio ikastea. Hizkuntzak asko gustatzen zaizkit, baina zein ikasi aukeratu behar nuenean, lur-globo bat birarazi eta nire hatzak patua aukeratuko balu bezala izan zen... euskara, zergatik ez? Ez nekien ezer euskarari buruz. Gure familian behinik behin, zenbait belaunaldi lehenago hitz egiteari utzi zitzaion. Zerbait, ordea, banekien: flora, fauna eta klima ezagutzen ez nituen oihan batean sartzea bezalakoa izango zen. Baina misterioak gogo beroarazi zidan.

Bidaia hau hasteko motxila egin aurretik, gure birramonak esandako hitz bakan batzuk nituen poltsikoetan eta euskal pilotako lehen txapelduna izan zen ahaide baten egunkari-artikulu bat, besterik ez. Horrekin bakarrik murgildu nintzen abenturan. Bidaiatzen dugunean, askotan turismo-liburuxkek erakusten ez dizkiguten txoko ezkutu edo kalezulo zaharrak ezagutzen ditugu.

Euskarazko hitzak oso eskulan apal eta delikatuak dira, naturako elementuez eginak bailiran. Eta eskulan azoka batean barrena nabilenean, koloreekin, ehundurekin eta istorioekin nahastuta, maite ditudan pertsona guztiak hor egon daitezen nahi dut eta sentsazio horiek nirekin goza ditzaten.

Egiari zor, ez naiz inoiz etxetik urrun sentitu bidaia honetan. Hein batean, beti sentitu izan dut leku hau arbasoen etxea zela, zeina beren pentsamenduen eta oroitzapenen bidez bisitatzen zuten. Zenbat eta gehiago bidaiatu, orduan eta gehiago sentitzen dut hau nire lekua ere badela, nire etxea. Bai, bidaia honetan denbora gehiago emango dut... horrelaxe, soinean dudanarekin, horrek eramango bainau gero eta urrunago.

EL VIAJE DE LAS PALABRAS

Cucha, upa, mochila, chimichurri, chiquito, charra, ganzúa, aquelarre, izquierda, cachorro... ¡Y parranda! ¡¿Cómo no?!

Las palabras que acabo de mencionar provienen del euskera y, muchas veces sin saberlo, las utilizamos de forma cotidiana en Uruguay. Estas palabras también fueron haciendo un largo viaje atravesando el tiempo de generación en generación. Un día, estudiando euskera, me encontré con algo que mi madre repetía por fonética, algo que le decía su abuela.

¡Mirá, mamá, estas eran las palabras de tu abuela!: «**neska polita**» (nena linda), «**neskatxa polita**» (nenita linda)... recuperar y dar sentido a esas palabras fue algo indescriptible.

Quizás saber euskera no me dé fama o dinero, pero me da la oportunidad de abrazar a algún anciano de la familia que nunca conocí.

HITZEN BIDAIA

Cucha, upa, mochila, chimichurri, chiquito, chatarra, ganzúa, aquelarre, izquierda, cachorro... eta parranda! Nola ez!

Aipatu berri ditudan hitz horiek, eguneroko bizimoduan erabiltzen ditugu Uruguain. Hitz horiek ere belaunaldiz belaunaldiko bidaia luzea egin dute. Egun batean, euskara ikasteko bidaia honetan, amak fonetikaz errepikatzen zuen zerbaitekin topatu nintzen, amonak esaten zion zerbaitekin.

—Begira, ama, hauek ziren birramonaren hitzak!: «neska polita», «neskatxa polita...» — hitz horiei zentzua ematea eta berreskuratzea deskribaezina izan zen.

Agian, euskara jakiteak ez dit osperik edo dirurik emango; baina inoiz ezagutu ez dudana arbasoren bat besarkatzeko aukera ematen dit.

EN EL BUS

Hace un par de años, Iban, mi compañero de conversación del programa **Mintzanet**¹, vino a conocer Uruguay. En su estadía, durante la celebración del día del euskera, decidimos ir al centro vasco y para eso tomamos un ómnibus en la calle Gral. Flores. En el bus venían dos compañeras de euskera, Olga y María, que cuando Iban y yo subimos, ellas desde el fondo (para que nosotros las viéramos) nos saludaron en voz alta: «Kaixo, Iban; Kaixo, Noel...».

El vasco se quedó parado en el pasillo porque el ómnibus iba bastante lleno y no había mucho lugar, pero yo sí encontré un asiento libre al lado de una señora. Apenas me senté, la mujer (fuerte, para que todos los demás se enteraran), dijo:

—¡Ay!, cuando escuché «Kaixo», en seguida me acordé de los años en que viví en Bilbao...

—¡Ah, qué lindo Bilbao! —asentí yo.

—¡Mi abuelo nació en Sestao! —saltó de su asiento otra mujer muy orgullosa.

— 🙄 ¡Qué casualidad! —dije.

1 Programa voluntario de práctica de conversación on-line.

Y en ese momento escuché que alguien agarró de charla a Olga por el mismo tema. De a poco, se fueron generando cada vez más conversaciones. Mi amigo quedó petrificado mirando la escena que parecía sacada de una película. ¡El conductor también! Iba atento a todo, mirando por el espejo retrovisor. ¡Y es que las conversaciones eran cada una más increíble que la otra!

El ómnibus se detuvo y un señor mayor subió y se quedó parado en el pasillo al lado de Iban, y solo apenas un momento después de escuchar las conversaciones, lo miró y le dijo: «¡sí, señor!, mi apellido es Etxeberria. Vasco».

Iban, ya con los ojos fuera de sus órbitas, dio medio giro y, frente a todas esas personas, en un grito desesperado, preguntó:

—¿Acaso hay alguien que no sea vasco acá?.

¡Y todos largamos la carcajada!

AUTOBUSEAN

Duela pare bat urte, *Mintzanet* programan bidelaguna dudana, Iban, Uruguai ezagutzera etorri zen. Hemen zela, Euskararen Nazioarteko Eguna ospatu behar genuela eta, Euskal Etxera joateko autobusa hartu genuen. Autobusa jendez beteta zegoen, eta, erdian, kuadrillako bi neska zeunden: Olga eta María.

Iban eta biok igo ginenean, haiek —guk ikusteko— ozenki agurtu gintuzten:

—Kaixo, Noel! Kaixo, Iban!

Bidelaguna pasilloan zutik geratu zen, ez baitzegoen leku askorik; baina nik bai, nik aurkitu nuen aulki libre bat emakume baten ondoan. Eseri bezain laster, emakumeak, oihuka, beste guztiek ondo entzuteko moduan, honela esan zidan:

—A! «Kaixo» entzuteak gogorarazi dit ni Bilbon bizi izan nintzeneko garaia...

—A! Bilbo, zein ederra! —esan nuen nik.

—Gure aitita Sestaon jaio zen! —harro esan zuen beste emakume batek.

—Zer-nolako kasualitatea! —gehitu nuen.

Une horretan, norbait Olgarekin gai berari buruz hasi zen... Pixkanaka-pixkanaka gero eta elkarrizketa gehiago sortu ziren. Autobus horretan guztiek zuten loturaren bat Euskal Herriarekin! Bidelaguna zur eta lur geratu zen eszenari begira, pelikula batetik hartua ematen zuenari so. Gidaria ere, atzerako ispiluaz baliatuta, adi zegoen gertatzen zenaz; izan ere, elkarrizketak zein baino zein interesgarriagoak ziren!

Hurrengo geltokian, gizon heldu bat igo eta Ibanen ondoan geratu zen, pasilloan. Elkarrizketak entzun orduko, zera esan zion Ibani: Bai, jauna! Nire abizena Etxeberria da. Euskalduna.

Bidelagunak, begiak orbitetatik kanpo, biratu eta txundituta galdetu zuen:

—Ba al dago euskalduna ez den norbait hemen?

Algaraka hasi ginen denok.

EL DÍA INTERNACIONAL DE LA DIÁSPORA

Me parece que el mejor modo de explicar qué es el día de la diáspora es contar cómo lo vivimos en el centro vasco. El 8 de setiembre es un día que esperamos con mucha ilusión. Vamos al centro vasco y nos da mucha alegría juntarnos.

Algunas personas se encargan de la comida. Los amantes de las recetas tradicionales, los maestros de la cocina... pero yo no estoy entre esas personas. ¡Soy un desastre para la cocina y, si hay quienes lo hacen bien, mejor dejarlo en sus manos!

El lugar se decora con la **ikurriña**, con banderas, carteles y fotos. Generalmente, de eso se suelen encargar los profesores y estudiantes de euskera.

Otra cosa que nunca falta en ese tipo de reuniones es la danza, ¡por supuesto! Ahí también se me complican las cosas: no puedo coordinar los pies, voy a contramano, cuento mal los saltos o las vueltas...

¡Ya sé lo que estarán pensando! Esta no baila, no cocina... ¿entonces a qué va? Y es que «los de

la diáspora» no perdemos la oportunidad de juntarnos, de reconocernos en el otro... de sentirnos parte.

Por eso los vascos y descendientes en Uruguay, en Argentina, en Japón, en México y en tantos otros países, cada 8 de setiembre nos juntamos para recuperar la memoria colectiva y transmitirla a nuestros hijos e hijas.

De esa forma, las historias y las palabras continuarán su viaje.

DIASPORAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Diasporaren Nazioarteko Eguna azaltzeko modurik onena euskal etxean nola bizi dugun kontatzea da: irailaren 8a ilusio handiz itxaroten dugun eguna da. Euskal Etxera joaten gara eta poz-pozik elkartzen gara.

Lagun batzuk arduratzen dira otorduaz: errezeta tradizionalen maitaleak, sukaldaritza maisuak... Ni ez nago horien artean. Sukaldean desastre hutsa naiz! Batzuek ondo egiten badute, hobe beren esku uztea.

Lekua ikurriña eta banderekin apaintzen da. Kartelak eta argazkiak jartzen dira. Orokorrean, euskara irakasle eta ikasleok arduratzen gara lan horietaz.

Horrelako bilkuretan inoiz ez da dantzarik falta izaten, jakina! Horretan ere nireak egiten du! Ezin ditut oinak koordinatu, kontrako norantzan joaten naiz, gaizki zenbatzen ditut jauziak edo birak...

Badakit zer pentsatzen ari zareten: honek ez du dantzan egiten, ez du janaririk prestatzen... Beraz, zertara joaten da? Izan ere, «Diasporakook» ez

dugu egun horretan elkartzeko aukerarik galtzen, ezta bestearengan geure burua islatuta ikusteko paradarik ere, euskal komunitatearen parte garela sentitzeko abagunerik.

Horregatik, euskaldunok eta ondorengook Uruguain, Argentinan, Japonian, Mexikon eta beste hainbat herrialdetan, memoria kolektiboa berreskuratzeko eta gure seme-alabei transmititzeko elkartzen gara irailaren 8an.

Horrela, istorioek eta hitzek beren bidaia jarraituko dute belaunaldiz belaunaldi.

FUERZA DE HOMBRE

Los lunes hago terapia con una masajista-quinesióloga. Ella me avisó desde la primera sesión que al día siguiente me iba a doler todo el cuerpo, pero como yo tengo el «cuero duro» hasta el momento eso no me había sucedido.

Ese lunes, como todas las semanas, fui al consultorio.

—¿Qué tal tu fin de semana? —me preguntó mientras comenzaba a hacerme los masajes.

—¡Bien! —le contesté— Hicimos una reunión en el centro vasco por el día de la diáspora. Canté un par de temas, me puse bastante nerviosa. Pero también leí unos textos que escribí. Hice una representación... eso lo disfruté pila. Se trataba básicamente de esas cosas que se transmiten en las familias de generación en generación y de la cantidad de vascos que hay en todos lados...

—Y, viste que acá todos somos «vascos franceses...» —me interrumpió.

—¡Ah! —alcancé a decir, porque ese comentario me sorprendió, ¡otra vasca más!, pensé.

— ...y algunas cosas nos corren por la sangre, es como si fuera ¡algo genético te diría! —siguió diciendo.

—Bueno—dije tratando de seguir su lógica—, en el caso de mi familia, por ejemplo, la abuela de mi madre siempre decía «en esta casa las mujeres tienen fuerza de hombre», y yo me pregunto si eso no vendrá, ancestralmente por así decirlo, de eso de andar cargando piedras, cortando troncos... — dije riendo y continué— No sé..., mis hermanas y yo movemos todos los muebles de lugar solas. Muchas veces estanterías enteras sin vaciarlas, solo por pereza. Bibliotecas llenas de libros de una punta a la otra de una habitación, roperos, lo que sea... —terminé diciendo.

—¡Si te cuento la que me mandé yo...! —dijo ansiosa por contar su historia—Tenía un auto divino, nunca me fallaba, pero un día se me quedó justo antes de una subida. Estaba sola. No tenía otra. Me bajé y lo empecé a empujar. Empujé y empujé... ¡no sabés lo que fue esa subida empujando el auto yo sola!

Mientras hacía su relato, se acordaba de la fuerza que tuvo que hacer y con sus manos firmes me amasaba cada vez más fuerte. Me contó que, después de hacer eso, tuvo una lesión en el cuello. Al día siguiente, no podía entender cómo había sido

capaz de mover ella sola el auto por un trayecto tan largo y en subida, y también me contó que en alguna otra ocasión había levantado algún ángulo del auto para dejarlo mejor estacionado. Le comenté que vi varios videos de cuadrillas haciendo eso en Bilbao cuando no hay mucho espacio para maniobrar.

—Al final de aquella pendiente—, continuó con su anécdota— estaba a media cuadra de la entrada al portón donde debía llegar. Tuve que darle mucho más impulso y, para que el auto entrara, le metí más fuerza todavía —terminó diciendo al tiempo que intensificaba el masaje.

Eso pasó ayer. Hoy me duele todo el cuerpo.

Astelehenetan terapia egiten dut Mónica masajista-kinesiologoarekin. Lehenengo saiotik esan zidan hurrengo egunean gorputz osoa minduta izango nuela, baina beti esaten dudana bezala: «nik larri gogorra daukat», eta, orain arte, ez zait horrelakorik gertatu.

Astero bezala, kontsultategira joan nintzen, eta, masajea hastearekin batera, zera galdetu zidan:

—Zer moduz asteburua?

—Ongi! Euskal Etxean elkartu ginen Diasporaren Nazioarteko Eguna ospatzeko. Pare bat abesti kantatu behar nituela eta, urduri samar jarri nintzen. Baina idatzita nituen testu batzuk ere irakurri nituen. Antzezlan bat egin nuen, eta, horretan, gozatu egin nuen. Funtsean, belaunaldiz belaunaldi familietan transmititzen diren kontu horiek ziren antzeztutakoak eta leku guztietan dagoen euskaldun kopuruari buruzkoak...

—Ba, konturatu al zara, azkenean, hemen denok garela «Frantziako euskaldunak?» —eten zuen nire jarduna.

—A! —esan nuen. Izan ere, iruzkin horrek harritu egin ninduen, «beste euskaldun bat!» pentsatu nuen neure artean.

—Gauza batzuk odolean daramatzagu. Zerbait genetikoa balitz bezala dela esango nuke! — jarraitu zuen masajistak.

—Ba, izan liteke —erantzun nuen bere logikari jarraituz— gure familiaren kasuan, adibidez, amaren amonak beti esaten zuen: «Etxe honetan emakumeek gizon indarra dute», eta nik neure buruari galdetzen diot ea hori ez ote den etorriko antzinako zereginetatik, hau da, harriak kargatzen, enborrak mozten ibiltze horretatik... —esan nuen barreka eta gaineratu—. Ez dakit, etxean, ahizpok mugitzen ditugu altzariak. Askotan, alferkeriagatik hustu gabeko apalategiak, arropategiak... edozer mugitzen dugu gelaren alde batetik besteraino — amaitu nuen esaten.

—Nik egindakoa kontatuko banizu...! —esan zuen bere balentria kontatzeko grinaz- Nik inoiz hutsik egiten ez zidan auto eder bat nuen. Baina, egun batean, aldapa baten hasieran geratu egin zitzaidan. Bakarrik nengoenez, ez nuen beste aukerarik: jaitsi eta bultza egin. Bultza eta bultza egin nion. Ez dakizu zer izan zen igoera hura autoari neu bakarrik bultzaka!

Ohartu nintzen kontakizunean aurrera egin ahala, nik armairuak mugitzean bezala, bera ere egin behar izan zuen indarraz oroitzen ari zela; izan ere, gero eta indartsuago sentitzen nituen bere hatzak larruazalean. Hainbesteko ahaleginaren ondorioz, lepoan lesio bat izan zuela esan zidan. Hurrengo egunean, ezin zuen ulertu nola mugitu ahal izan zuen berak bakarrik hain ibilbide luze eta aldapatsuan. Gainera, kontatu zidan beste noizbait autoaren alde bat altxatu behar izan zuela hobeto aparkatuta uzteko. Komentatu nion lagun-talde batzuen bideo batzuk ikusi nituela, Bilbon, aparkatzeko leku askorik ez, eta eskuez maniobrak egiten autoa ondo uzteko.

—Malda haren amaieran —pasadizoarekin jarraitu zuen—, garajerako atetzarrera iritsita, bulkada handia eman behar izan nion irekitzeko, eta are bultzada handiagoa emanda lortu nuen autoa sartzea —esanez eta aldi berean masajea gogortuz amaitu zuen kontakizuna.

Atzo gertatu zen hori.

Gaur, gorputz osoa minduta daukat.

UNA DE FÚTBOL: EL EMPATADOR

Todos sabemos de sobra qué lugar ocupa por estas latitudes el fútbol y los cracks del esférico.

Nacido en Galicia, pero de apellido vasco, vivió en Montevideo, en el barrio Arroyo Seco, José Pedro Cea, que de chico era conocido como el «yelerito» porque trabajaba vendiendo y repartiendo hielo. Claro que no faltarán quienes digan que en realidad nació acá (como Gardel).

Un día escuché en la columna radial de Nicolás Yeghyaian del programa *13 a 0*, que Cea tenía un juego aguerrido y de gran habilidad. Que era ágil, tenía llegada, gambeta y gol. ¡Completo!

Ahí también supe que «El vasco Cea» jugó todos los campeonatos del mundo en 1924, 1928 y 1930. El mito surgió cuando repitió su hazaña. Primero ante Holanda y luego en la final contra Italia. Tras lograr empatar en ambas, supuso el triunfo de Uruguay. Así se ganó el apodo de «el empatador».

En 1930, en el primer mundial, en Uruguay, nuevamente Cea forma parte del plantel. En el partido final, al término del primer tiempo, iba

con ventaja la selección de Argentina sobre Uruguay por 2 a 1, pero, como era de esperar, el vasco Cea empató el partido en el segundo tiempo. Para ese entonces, luego de que Cea anotara el gol del empate, cualquier rival sabía cuál sería el desenlace: el juego terminó con el triunfo de Uruguay por 4 a 2.

En una ocasión, en Radio Rivadavia en Buenos Aires, le preguntaron por una vez que había jugado en México: «Vasco, ¿a ustedes les afectó la altura en México?»; y con una sonrisa respondió de forma picaresca: «¡Sos loco!... en ese momento México estaba al nivel del mar».

No hay manera: un vasco, si no la gana, la empatata.

FUTBOLARI BURUZKO BAT: «BERDINTZAILEA»

Denok dakigu zein leku duten latitude hauetan futbolak eta esferikoaren crackek.

Galizian jaioa, abizen euskaldunekoa, Uruguain bizi izan zen Arroyo Seco auzoan, José Pedro Cea, mutikotan «yelerito» ezizenez ezagutzen zena izotza saltzen zuelako. Ez da falta izango, noski, benetan hemen jaio zela dioenik (Gardel bezala).

Nicolas Yeghaianen «13 a 0» irratsaioan entzun nuen «El vasco» oso jokalaria trebea zela, joko sutsua zuela, bizkorra zela eta iritsiera, ganbeta eta gola zituela. Ezin hobea!

«El vasco Cea»k 1924an, 1928an eta 1930ean munduko txapelketa guztiak jokatu zituela ere jakin nuen. Mitoa Holandaren aurka egindako balentria errepikatu zuenean sortu zen, eta, gero, Italiaren aurkako finalean egitandia errepikatu zuenean. Bietan berdintzea lortu ondoren, Uruguairen garaipena ekarri zuen. Horrela «berdintzailea» ezizena irabazi zuen.

1930ean, Munduko Lehen Txapelketa, Uruguain. Cea berriro taldearen parte zen. Final horretan, Argentina 2-1 irabazten ari zela, espero

zen bezala, Cea euskaldunak partida berdindu zuen 2. minutuan. Yeleritok berdinketaren gola sartu bezain laster, aurkariak bazekiten zein izango zen amaiera: partida Uruguairen 4-2ko garaipenarekin amaitu zen.

Behin, Mexikon jokaturako partida baten ondoren, zera galdetu zioten Buenos Aireseko Rivadavia irratiari: «Vasco, zuei erasan al zizuen altuerak Mexikon?»; eta irribarre batekin erantzun zuen modu pikareskoan: «Erotuta al zaude?... Une hartan Mexiko itsas mailan zegoen».

Ezin da bestela izan: euskaldun batek irabazten ez badu, berdindu egiten du.

CARLOS GARDEL Y «EL FRANCESITO»

Acerca de aquel partido final frente a Argentina, Eduardo Galeano dice en su libro *El fútbol a sol y sombra* que Gardel se fue al vestuario argentino y cantó para los jugadores. Argentina perdió ese partido... ambas selecciones se llevaron su premio: Uruguay, la victoria futbolística con goles de Castro, Dorado, y los vascos Iriarte y Cea; y Argentina, el regalo del Zorzal Criollo.

Mi abuelo Jorge Aiscar, debido a la procedencia de su familia venida a Uruguay desde Iparralde, tenía un dominio perfecto del idioma francés. Él conoció a Gardel. El cantor iba siempre al bar de un tío abuelo de mi madre a tomarse algunas copas. Mi abuelo en ese entonces tendría unos 10 años y Carlos hablaba con él en francés. Gardel entraba al local y preguntaba: «¿dónde está el francesito?, ¡vení a charlar un rato, francesito!».

Así le llamaba Gardel a ese niño de 10 años, a mi abuelo Jorge: «el francesito».

Argentinaren aurkako final hartan, 1930ean, Eduardo Gleanok *El fútbol a sol y sombra* liburuan dio Carlos Gardel abeslari famatua Argentinako aldageletara joan zela eta jokalarientzat abestu zuela. Argentinak partida galdu zuen... bi selekzioek irabazi zuten, ordea, euren saria: Uruguaiak partida irabazi zuen Castro, Dorado, Iriarte eta Cea euskaldunen golekina; Argentinak, berriz, Zorzal Criolloren oparia.

Jorge Aiscar gure aitonak, Iparraldetik Uruguaira etorritako bere familiaren jatorria zela eta, frantsesa ezin hobeto menderatzen zuen. Aitonak Carlos Gardel ezagutu zuen hamar bat urteko mutil koskorra zenean. Izan ere, abeslaria amaren osaba zaharraren tabernara joaten zen trago batzuk hartzera. Gardelek eta aitonak frantsesez hitz egiten zuten elkarrekin. Kantari sonatuak, tabernara sartu orduko, zera galdetzen zuen: «Non dago “el francesito?” Etor zaitez hitz egitera, francesito!».

Gardelek «el francesito» deitzen zion gure aitona Jorgeri, hamar urteko mutikoari.

BRUJAS

Mi Madre y mi tía, siendo niñas pequeñas, en las noches de luna llena, salían al patio de la casa tomadas de la mano de su abuela y repetían: «buenas noches, Señora Luna, danos felicidad, amor y fortuna».

Mi bisabuela lo hacía y lo hago yo: poner tijeras en cruz o clavar un cuchillo en la tierra para «cortar» alguna tormenta demasiado larga o cruel.

Desde mucho tiempo antes, ya había mujeres que preparaban el **ogi salutare** o «pan que da salud» de noche vieja, para preservar la salud de los comensales o, a veces, lo reservaban para curar algún perro de la rabia (en esos tiempos era el único método conocido para sanar esa enfermedad); limpiaban las cocinas por las noches y dejaban las escobas invertidas para ahuyentar a los malos espíritus; guardaban las cenizas del tronco de noche vieja (vísperas de navidad) para proteger la casa, las tierras y la labranza.



Hoy colgamos **eguzkiloreak** (flor del sol)² en las puertas para proteger el hogar, así como ramos de ruda, laurel y otras hierbas. También saltamos el fuego de San Juan tres veces y quemamos en papeles lo que se quiere alejar y lo que se quiere atraer. Todavía se coloca el cordón de San Blas y se lo quema más tarde para prevenir enfermedades respiratorias...

Sorginak, de «sortu» (crear) en euskera, se llamaba así a aquellas creadoras de curas y conocedoras de los ciclos de la naturaleza. Las poseedo-

² **Eguzkilorea** (flor del sol) es un cardo, la flor nacional a la que se le atribuyen poderes de protección del hogar vasco.

ras de esos conocimientos eran poderosas en su comunidad.

El Tribunal de la Inquisición Española de Logroño quiso acabar con todo esto el 7 y 8 de noviembre de 1610. Luego de un largo proceso de varios meses de duros interrogatorios y cárcel, aquellas personas que depositaban su fe en **Mari** (la madre tierra), **Ortzi** (el cielo), **Ilargi** (la luna), fueron acusadas de adorar al diablo y provocar desgracias, siendo quemadas vivas frente a unos 30 mil espectadores. Pero era demasiado tarde: sus nietas ya conocían los poderes curativos de la naturaleza.

SORGINAK

Ama eta izeba, txikitan, ilargi beteko gauetan, etxeko lorategira irteten ziren amonaren eskutik helduta, eta zera errepikatzen zuten: «Gabon, Ilargi Amandrea, emaguzu zoriona, maitasuna eta zortea».

Gure birramonak egiten zuen eta nik ere egiten dut: guraizeak gurutzean jarri edo labana bat lurrean iltzatu ekaitz luze edo ankerren bat «eteteko».

